

Gesto por la paz

IX Acto de Solidaridad con las Víctimas
Bilbao, 14 de diciembre de 2008

Recoge su testigo

Durante décadas, hemos sido testigos de la violencia terrorista. Durante años, hemos visto matar, herir, amenazar y extorsionar a miles de personas. La última de ellas, Ignacio Uría, cuya muerte aún está viva en nuestras pupilas. Todas nuestras vidas están llenas de imágenes, recuerdos y experiencias que nos han puesto frente a la falta de humanidad más absoluta. De esta forma, mientras las víctimas se iban convirtiendo en la consecuencia irreparable del ejercicio violento, nosotros nos hemos ido transformando en los testigos irremisibles de la tragedia.

Junto al asesino, que tiene la inmensa responsabilidad de haber elegido la muerte como arma política, y junto a la víctima, que encarna en su persona el daño dirigido a toda la sociedad, los testigos tenemos también una doble función necesaria en el camino hacia la convivencia en paz y libertad. Por una parte, es obligatoria nuestra constante interpelación a quienes ejercen y justifican la violencia para que renuncien a la máxima de las injusticias como modo de resolver las legítimas diferencias políticas. Al igual que las víctimas, somos testigos a la fuerza. Pero, antes que eso, somos personas y ciudadanos que queremos vivir en una sociedad de individuos que respeten los derechos más fundamentales. Es decir, personas y ciudadanos que no quieren seguir siendo testigos de la iniquidad y la desolación que se cometen en su nombre.

Por otra parte, de la misma manera que las víctimas son testigos tristemente privilegiados del sufrimiento, los testigos somos también víctimas indirectas con la sensibilidad saturada de espanto y horror. Es verdad que ha habido momentos en los que esta sociedad ha carecido de la humanidad suficiente para colocarse al lado de quienes más sufrían, pero hoy ya no sólo hemos abandonado cualquier intento de explicarnos el sinsentido de quien mata, sino que hemos decidido hacer brotar la memoria de los que fueron asesinados. Somos testigos que contaremos lo que hemos visto y vivido, pero que también recogeremos el testigo de la memoria de las víctimas para incorporarlo a nuestro relato. Porque tenemos la convicción de que, desde el presente, podemos cambiar la historia y, también, el futuro.

Gesto por la paz

Biktimekiko Elkartasunerako IX. Ekitaldia
Bilbao, 2008.eko abenduaren 14a

Jaso euren lekukoa

Hamarkada luzeak daramatzagu indarkeria terrorista jasaten. Urtez urte, milaka gizon eta emakume hil, zauritu, mehatxatu eta estortsionatu dutela ikusi dugu. Azken akto makabroa burutu berri duten Inazio Uriaren hilketa izan da. Gure bizitzak erabateko gizatasunik eza erakutsi diguten irudi, oroipen eta esperientziez beterik daude. Honela, biktimak jarduera bortitzaren ondorio konponezin bihurtu ahala, gu geu zoritxarraren testigu barkagaitz bilakatu gara.

Heriotza arma politikotzat aukeratu izanaren egundoko erantzukizuna duen hiltzailearekin eta bere buruarengan gizarte osoari zuzendutako kaltea islatzen duen biktimarekin batera, testiguok ere ezinbesteko eginkizun bikoitza dugu bake eta askatasunezko bizikidetasunerako bidean. Alde batetik, derrigorrezkoa da gure etengabeko interpelazioa indarkeria gauzatzen eta justifikatzen dutenentzat, bidezko alde politikoak konpontzeko aukeratu duten biderik bidegabekoenari uko egin diezaioten. Biktimak bezala, testigu gara derrigorrean. Baina, horren aurretik, funtsezko eskubideak errespetatzen dituzten gizabanakoen gizartean bizi nahi dugun pertsona eta herritarrak gara. Hau da, beraien izenean egiten den zuzengabekeriaren eta hondamendiaren testigu izaten jarraitu nahi ez duten pertsona eta herritarrak.

Beste alde batetik, biktimak sufrimenduaren zoritxarreko testigu pribilegiatu diren bezala, testiguok ere sentikortasuna ikaraz eta izuz gogaituta dugun zeharkako biktima gara. Egia da garai batzuetan gizarte honek ez duela gizatasun nahiko erakutsi gehien sufritzen zutenen ondoan jartzeko, baina gaur, hiltzen duenaren burugabekeria azaltzeko saiakera oro bazterteaz gainera, asasinatutakoen oroipena agerraraztea erabaki dugu. Ikusi eta bizi izan duguna kontatuko dugun testiguak gara, baina, era berean, biktimen oroipenaren lekukoa jasoko dugu, gure kontakizunari eransteke. Orainalditik, historia, eta baita geroa ere, alda dezakegula sinesten dugulako.